# *boladaz* pasatuta

# pasado de *moda*

## ERAKUSKETA
## EXPOSICION





**2003ko Apirilaren 29tik Abuztuaren 31ra**

**Del 29 de Abril al 31 de Agosto de 2003**

**Euskal Museoa / Museo Vasco**
**Plaza Miguel de Unamuno. Bilbao.**

"Boladaz Pasatuta" erakusketa, Bilboko Euskal Museoak duen jantzi bildumaren jende aurreko lehenengo aurkezpena da. Museoak daukan bildumarik garrantzitsuena da, bai berau osatzen duten fondoen kopuru, aberastasun eta ugaritasunagatik eta, zalantzarik gabe, euskal jantzi herrikoiei dagokienean, Euskal Herriko bildumarik onena delako.



Bildumaren hasiera, Museoaren beraren historiarekin ia bat dator, izan ere, lehenengo jantziak 1917 eta 1925 urteetan jaso ziren. Jantzi horiek dira, dudarik gabe, bilduma honen benetako harribitxiak, garai horretatik aurrera poliki-poliki zabaltzen eta aberasten joan baita inguru tradizionaletik egindako ekarpenekin eta, 1980ko hamarkadaz geroztik, hiriko giroaren adierazgarri izan diren janzkiekin.

Bilduma honetatik abiatuz, beste erakunde batzuen eta partikularren hainbat arropa eta janzkiekin osatu da, erakusketa honen bitartez gure arbasoen janzkerak erakutsi nahi dira, alegia, XVIII. mendearen bigarren erdialdetik XX. mendearen lehen laurdenera arteko denboraldian Euskal Herrian zer-nola janzten zen erakutsi nahi da. Horretarako, ongi bereizitako bi espazio antolatu dira, bata giro tradizionalaren adierazle izango dena eta, bestea, hiriko giroarena.

Bilduma aurkezterakoan testuingurua errespetatu nahi izan da eta arropa horiek jantzi ziren garaiko giroa sortu da, horrela lortzen baitute benetako zentzua edukitzea. Euskal pintura kostunbrista, Guinea, Arteta, Ramon Zubiaurre eta Losada bezalako artista ospetsuen obretan zehazten dena, baliabide egokia izan da janzki mota ugari orden batean erakusteko garaian. Hauek, janzkera herrikoiaren errealitatea eta aniztasuna erakusten dute bere adierazpen desberdinetan, alegia, eguneroko eta jaietako erabileran, eta testuinguru geografiko desberdinetan (kosta, barnealdea,...), eta espero dugu behin betiko gaindituko ditugula urteetan gai honen inguruan errestatu izan diren topiko eta folklorismoak.

Garaiko argazkiak, mural tamainara handituta, izan dira hiri giroko janzkien erakusketarako erabili diren euskarriak. Janzki horiek gehienak euskal hiriburuetatik datoz eta garai hartako moda internazionalaren estilo eta joera batzuen zertzelada xume batzuk dira, noble eta burgesen janzkeraren erakusgarri.

Nekazal munduko janzkiak eta hiri giroko janzkiak, modaz pasatako jantziak dira baina gure iraganaren osagarri den alderdietako baten ikuspegia eskaintzen digute, alegia, modaren iragana, jantzi eta arropen iragana. Egun, beren funtsezko egitekoa, pertsonak janztekoa, alegia, galdu dute, baina arropa hauek jantzi izan zituzten haien identitate historiko eta kulturalaren adierazgarri eta lekuko bihurtu dira.

La Exposición "Pasado de Moda" constituye la primera presentación al público de la colección de indumentaria del Museo Vasco de Bilbao, una de las colecciones más importantes del Museo en cuanto a volumen, riqueza y variedad de los fondos que la integran y, sin duda, la mejor colección del País en lo que a indumentaria popular vasca respecta.

Su origen corre paralelo al de la propia historia del Museo, habiéndose recogido las primeras prendas entre los años 1917 y 1925, prendas que son hoy, sin duda, las auténticas joyas de una colección que, desde entonces, ha ido paulatinamente ampliándose y enriqueciéndose con aportaciones procedentes del ámbito tradicional y, a partir de la década de 1980, con trajes representativos del mundo urbano.

Partiendo de esta colección, que se ha completado con algunas prendas y trajes pertenecientes a otras instituciones y particulares, la Exposición busca ofrecer un acercamiento a lo que han sido las formas de vestir en el País Vasco durante el período comprendido entre la segunda mitad del siglo XVIII y el primer cuarto del siglo XX, articulándose en dos espacios bien diferenciados, representativos, respectivamente, del mundo tradicional y del mundo urbano.

Para su presentación se ha buscado la contextualización, la recreación de los ambientes en los que estas prendas se vistieron y en los que, por tanto, cobran su pleno sentido. La pintura costumbrista vasca, concretada en las obras de reconocidos artistas como



Guinea, Arteta, Ramón de Zubiaurre y Losada, sirve de marco para la exhibición ordenada de un abanico de trajes que reflejan la realidad y la variedad del traje popular en sus diferentes manifestaciones de uso cotidiano y festivo y en sus diferentes contextos geográficos (costa, interior...), buscando superar, esperamos que definitivamente, los tópicos y folclorismos que durante años se han venido arrastrando en este tema.

Ampliaciones murales de fotografías de época han sido los soportes empleados para la exposición de los trajes urbanos, trajes que, procedentes en su mayoría de las capitales vascas, son simples pinceladas de algunos de los estilos y tendencias de la moda internacional de ese período y ejemplos de las formas de vestir de las clases nobles y burguesas.

Trajes rurales y trajes urbanos, trajes pasados de moda que nos ofrecen una visión de uno de los aspectos que configuran nuestro pasado, el pasado de la moda, un pasado de prendas y ropas que han perdido su función primordial, la de vestir a las personas, para convertirse en expresión y testimonio de la identidad histórica y cultural de aquellos que las portaron.



EUSKAL ARKEOLOGIA, ETNOGRAFIA ETA KONDAIRA MUSEOA

*MUSEO ARQUEOLOGICO, ETNOGRAFICO E HISTORICO VASCO*

**Miguel de Unamuno Plaza, 4 ▪ 48006 *BILBAO* ▪ Teléfono 94 415 54 23 ▪ Fax 94 479 06 08**
**http://euskal-museoa.org ▪ museoa@euskal-museoa.org**




## Ikusleentzako Orduak

**MUSEOA**

**Asteartetik Larunbatetara**
goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 20,00tararte

**Igandea**
goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 14,00tararte

**Bisita gidatuak dohainik**
Asteartetik Ostiralera
11,30 - 13,30 - 15,30

## Horarios de Visita

**MUSEO**

**De Martes a Sábado**
de 11,00 a 20,00 horas

**Domingo**
de 11,00 a 14,00 horas

**Visitas guiadas gratuitas**
de Martes a Viernes
11,30 - 13,30 - 15,30

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura